



## 303 eredia

Eredu hau ondoko subjektu pasiboek erabili behar dute:

1. Aitorpena araubide orokorrean aurkeztu behar dutenek.
2. Egutegiko aurreko urtean egindako eragiketen bolumena 6.010.121,04 € baino gehiago izateagatik hileko aitorpena aurkeztu behar dutenek.
3. Hileko itzulketen erregistroan inskribatuta daudenek.

### Non aurkeztu behar da

Autolikidazioaren azken emaitza:

Dirua sartu beharra bada, lau aukera daude:

- a) Telematikoki.
- b) Bizkaiko Foru Ogasunaren Kutxan, esku-dirutan edo txekearen bidez.
- c) Erakunde laguntzaile batean (banketxea edo aurrezki kutxa).
- d) Sarrera geroratzeko eskatzen bada, eskabidearekin batera.

Konpentsatu beharra edo zero bada, bi aukera daude:

- a) Telematikoki.
- b) Bizkaiko Foru Ogasunean, posta ziurtatuz bidalita zein norberak eramanda, eta haren bulego deszentralizatuetan.

303 eredia nahitaez aurkeztu behar dute telematikoki:

- a) Pertsona juridikoez, erakundeek eta Sozietateen gaineko Zergaren zergadun guztiak, beren jardunean besteren konturako zenbat langile erabiltzen dituzten gorabehera.
- b) Hirugarrenen izenean Bizkaibai sistemaren bidez telematikoki jarduteko baimena dutela, zerga aholkulari gisa aritzen diren profesionalak.
- c) Besteren konturako hamar enplegatu edo gehiago dituzten pertsona fisikoez, ondasun erkidegoek eta sozietate zibilek.
- d) Hileko itzulketen erregistroan inskribatutako subjektu pasiboek.

## 1. orrialdea

### Ekitaldia

Autolikidazioaren urtea jarri behar da.

### Epealdia

- Hiruhilekoko autolikidazioa izenez gero:

1H = 1. hiruhilekoa	2H = 2. hiruhilekoa	3H = 3. hiruhilekoa
---------------------	---------------------	---------------------

- Hileko autolikidazioa izenez gero:

01 = Urtarrila	02 = Otsaila	03 = Martxoa	04 = Apirila
05 = Maiatza	06 = Ekaina	07 = Uztaila	08 = Abuztua
09 = Iraila	10 = Urria	11 = Azaroa	12 = Abendua (*)

(\*) Hileko itzulketen erregistroan inskribatuta dauden subjektu pasiboentzat abendukoa azken autolikidazioa izango da.

### Konkurtoa dagoenean epealdia zatikatzea

Zergaren autolikidazioaren aldia konkurtoa adierazten bada auto baten bidez, subjektu pasiboak bi autolikidazio aurkeztu behar ditu: bata konkurtoa adierazi aurreko zerga-egitateengatik eta bestea adierazpenaren ondokoengatik.

[185] laukia X batez markatu behar da, eta autolikidazioaren aldia zatitzeko erreferentziatzat hartuko den eguna zehaztu behar da formatu honekin: urtea/hila/eguna.

### Autolikidazio osagarria

Autolikidazioa osagarria bada, X batez markatu behar da [01]. laukia.

Honen ondoretarako, autolikidazio osagarriak dira aurretik aurkeztutako bat osatzeko edo aldatzeko aurkezten direnak. Autolikidazio hauek sartu beharreko diru kopurua aurreko autolikidaziokoa baino gehiago edo itzuli edo konpentsatu beharrekoa baino gutxiago denean aurkeztu ahal dira.

### Kutxa-irizpidearen araubide berezia

[186]. Kutxa-irizpidearen araubide bereziari helduz gero, X jarri behar da lauki honetan.

[187]. Kutxa-irizpidearen araubide berezia aplikatu zaien eragiketen hartzailea izanez gero, X jarri behar da lauki honetan.

### Subjektu pasiboa

Atal honetako datu guztiak adierazi behar dira.

### Jarduera nagusia

Jarduera nagusizat epealdian sarrera gehien sortu dituen hartu behar da.

EJZ epigrafea/kodea: Beharrezkoa denean, egindako jarduera nagusiaren Ekonomi Jardueren gaineko Zergako epigrafea adieraziko da, edo, bestela, hura identifikatzen duen kodea.

Hileko itzulketen erregistroan inskribatuta badago, X batez markatu behar da [02]. laukia.

### Likidazioa

#### Sortutako BEZ

[03], [05] eta [07], Zerga tasa bakoitzeko kargapeko eta salbuetsi gabeko eragiketen zerga oinarriak zehaztu behar dira.

[04], [06] eta [08], Zerga oinarri bakoitzari berari dagokion zerga tasa aplikatzearen emaitzako kuotak adierazi behar dira.

[09], [10], [11], [12], [13], [14], [15] eta [16]. Baliokidetasun erreikarguaren eremuan kargatuko zerga oinarriak jarri behar dira, tasaren arabera (%0,5, %1,4, %5,2 eta %1,75), bai eta kargaren emaitzako kuotak ere.

[17] eta [18]. Likidazioaldian Batasunaren barruan egindako ondasunen eskuraketa guztiei dagokien zerga-oinarria eta horri tasa aplikatzearen emaitzako kuota adierazi behar dira.

[19] eta [20]. Ekitaldian subjektu pasiboa inbertitzearen eta Batasunaren barruko zerbitzu-emateen ondorioz sortutako zergaoinarrien batura eta haien zioz sortutako kuoten batura zehaztu behar dira.

[21] eta [22], [46] eta [47] zenbakietako laukitxoetarako aurreikusitako beste oinarri eta kuotak aldatzearen ondorioz sortutako zerga-oinarri guztien batura eta kuota guztien batura adieraziko dira.

[46] eta [47]. Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko Foru Arauaren 80. artikuluko Hiru eta Lau zenbakietan jasotako eragiketak soil-soilik islatzen dituzten faktura zuzentzaileen ondorioz sortutako zerga-oinarri guztien batura eta kuota guztien batura jarriko dira.

#### Sortutako kuota, guztira

[23], [04], [06], [08], [10], [12], [14], [16], [18], [20], [22] eta [47]. laukietako kuota guztien batura jarri behar da.

#### BEZ kengarria

[24], [25] eta [26]. Jasandako kuota kengarrien guztirako zenbatekoa adierazi behar da, lainaren erregela, behar denean, aplikatu ondoren.

[27]. Nekazaritzaren, abeltzaintzaren eta arrantzaren araubide bereziari heldutako subjektu pasiboek ordaindutako konpentsazioen zenbatekoa adierazi behar da, lainaren erregela, behar denean, aplikatu ondoren.

[28]. Aurreko epealdietan inbertsio ondasunen zioz aplikatutako kengarrien erregularizazioaren emaitza adierazi behar da. Jarduerari ekin aurreko kenkaririk badago, haien erregularizazioa ere zenbatu behar da. Erregularizazioaren ondorioz kengarrien zenbatekoa txikitu behar bada, emaitza (-) zeinuarekin adierazi behar da.

#### Kenkaria, guztira

[30], [24], [25], [26], [27] eta [28]. laukietan jarritako kuoten batura adierazi behar da.

### Kuotaren erregularizazioa (BEZari buruzko Foru Arauaren 80.art.Bost.5.a)

[45]. Eredu honetan aldi-aldi deklaratzera beharturik dagoen subjektu pasiboa zerga-oinarrian aldatetako jasotzen dituen faktura baten jasotzailea bada (eta aldatetako arrazoia BEZari buruzko Foru Arauaren 80. artikuluko hirugarren eta laugarren ataletan ezarritakoak badira soil-soilik), orduan lauki honetan jaso beharko ditu, hala badagokio, kengarriak izango ez diren jasandako kuoten zenbatekoak. Zenbateko



horiek zeinu positiboz adieraziko dira zerga-oinarriaren aldaketa gutxitze bat denean, eta zeinu negatiboz, berriz, zerga-oinarriaren aldaketa goranzkoa bada (hala ezartzen baita hirugarren ataleko 2. paragrafoan edo laugarren ataleko c) letraren 2. paragrafoan, biak ere BEZFAren 80. artikuluan jasoak).

## Zerga-ordainketaren ehunekoak Bizkaian

[32]. Zerga-ordainketan Bizkaiko Lurralde Historikoari dagokion ehunekoak zehaztu behar da. Ehuneko hau nahitaez adierazi behar da, likidazioaren emaitza gorabehera (kopuru bat konpentsatu, itzuli edo sartu beharra).

Aurreko epealdietatik konpentsatzeko geratu den kuota

[34]. Aurreko epealdietan sartu eta Bizkaiko Lurralde Historikoan konpentsatzeko geratu diren kuoten zenbatekoa adierazi behar da.

## Emaitza

Jarduerarik ez

[37]. Ekitaldian BEZaren kuotarik sortu ez jasan ez bada, X batez markatu behar da lauki hau.

Konpentsatu beharrekoa

[38]. [36]. laukiko zenbatekoa jarri behar da, baldin eta negatiboa bada eta itzultzeko eskatzen ez bada.

Itzuli beharrekoa

[39]. [36]. laukiko zenbatekoa jarri behar da, baldin eta negatiboa bada eta itzultzeko eskatzen bada. Hileko itzulketen erregistroan inskribatuta dauden subjektu pasiboek soilik eska dezakete.

Sartu beharrekoa

[40]. [36]. laukiko zenbatekoa jarri behar da, positiboa bada.

[41] eta [42]. laukiak autolikidazio osagarria aurkezten denean soilik bete behar dira.

## 2. orrialdea

Kutxa-irizpidearen araubide berezia duten subjektu pasiboentzako eta araubide horren eraginpeko eragiketen hartzaileentzako baina ez.

[200] eta [201] laukiak kutxa-irizpidearen araubide bereziari heldutako subjektu pasiboek soilik bete behar dituzte.

[200] eta [201]. Ondoko ondasun-emateen eta zerbitzugintzen zerga-oinarria eta kuota zehaztu behar dira: kutxa-irizpidearen araubide berezian egonik likidazioaldian araubide horren arabera batere sortu ez arren, BEZari buruzko Foru Arauko 75. artikuluan ezarritako arau orokorra aplikatuz sortu dituztenak.

[202] eta [203]. Ondoko ondasun-eskuraketen eta zerbitzugintzen zerga-oinarria eta kuota zehaztu behar dira: kutxa-irizpidearen araubide berezian egonik, edo horretan egon daitezkeela, likidazioaldian jaso arren ordaindu ez direlako ez oinarririk ez kuotarik sortu ez dutenak.

## Informazio gehigarria

Ondasun arrunten erosketak, [50]-[67] laukiak. Hona lauki horietan adierazi behar dena:

[50], [53] eta [56]. Epealdian egindako ondasun arrunten erosketen zioz jasandako kuotei dagozkien zerga oinarrien zenbatekoak adierazi behar dira, zerga tasa bakoitzeko.

[51], [54] eta [57]. Epealdian egindako ondasun arrunten erosketen dagozkien kuotak, zerga tasa bakoitzeko, kenezinak barne, lainaren erregela, bidezkoa denean, aplikatu baino lehen.

[52], [55] eta [58]. Epealdian egindako ondasun erosketek jasandako kuotak, zerga tasa bakoitzeko, lainaren erregela, bidezkoa denean, aplikatu ondoren.

[59]. Nekazaritzaren, abeltzaintzaren eta arrantzaren araubide bereziari heldutako subjektu pasiboek ekitaldian ordaindutako kuotei dagozkien zerga oinarrien zenbatekoa.

[60]. Nekazaritzaren, abeltzaintzaren eta arrantzaren araubide bereziari heldutako subjektu pasiboek ekitaldian ordaindutako kuoten zenbatekoa, lainaren erregela, bidezkoa denean, aplikatu baino lehen.

[61]. Nekazaritzaren, abeltzaintzaren eta arrantzaren araubide bereziari heldutako subjektu pasiboek ekitaldian ordaindutako kuota kengarrien zenbatekoa, lainaren erregela, bidezkoa denean, aplikatu ondoren.

[62]. Ekitaldian indarrean egon diren tasak ez beste batzuk aplikatu zaizkien ondasun arrunten erosketen fakturen ondoriozko kuotei dagozkien zerga oinarri guztien batura.

[63]. Ekitaldian %4, %10 eta %21 ez beste zerga tasa batzuk aplikatu zaizkien ondasun arrunten erosketen fakturei dagozkien kuota guztien batura, lainaren erregela, bidezkoa denean, aplikatu baino lehen.

[64]. Ekitaldian %4, %10 eta %21 ez beste zerga tasa batzuk aplikatu zaizkien ondasun arrunten erosketen fakturei dagozkien kuota kengarri guztien zenbatekoa, lainaren erregela, bidezkoa denean, aplikatu ondoren. Zenbatekoa negatiboa bada, (-) zeinuarekin jarri behar da.

[65]. [50], [53], [56], [59] eta [62]. laukietan adierazitako zenbatekoen batura.

[66]. [51], [54], [57], [60] eta [63]. laukietako zenbatekoen batura.

[67]. [52], [55], [58], [61] eta [64]. laukietako zenbatekoen batura.

*Gastuak*, [68]-[82] laukiak. Hona lauki horietan adierazi behar dena:

[68], [71] eta [74]. Epealdian sortutako gastuengatik jasandako kuotei dagozkien zerga oinarrien zenbatekoa, zerga tasa bakoitzeko.

[69], [72] eta [75]. Epealdian egindako gastuei dagozkien kuoten zenbatekoa, kenezinak barne, zerga tasa bakoitzeko, lainaren erregela, bidezkoa denean, aplikatu baino lehen.

[70], [73] eta [76]. Epealdian egindako gastuek jasandako kuota kengarrien zenbatekoa, zerga tasa bakoitzeko, lainaren erregela, bidezkoa denean, aplikatu ondoren.

[77]. %4, %10 eta %21 ez beste zerga tasa batzuk aplikatu zaizkien gastu fakturen ondorioz jasandako kuotei dagozkien zerga oinarri guztien batura.

[78]. Ekitaldian %4, %10 eta %21 ez beste zerga tasa batzuk aplikatu zaizkien gastu fakturei dagozkien kuota guztien batura, lainaren erregela, bidezkoa denean, aplikatu baino lehen.

[79]. Ekitaldian %4, %10 eta %21 ez beste zerga tasa batzuk aplikatu zaizkien gastu fakturei dagozkien kuota guztien batura, lainaren erregela, bidezkoa denean, aplikatu ondoren. Zenbatekoa negatiboa bada, (-) zeinuarekin jarri behar da.

[80]. [68], [71], [74] eta [77]. laukietan adierazitako zenbatekoen batura.

[81]. [69], [72], [75] eta [78]. laukietan adierazitako kopuruen batura.

[82]. [70], [73], [76] eta [79]. laukietako zenbatekoen batura.

*Inbertsio ondasunak*, [83]-[97] laukiak. Hona lauki horietan adierazi behar dena:

[83], [86] eta [89]. Epealdian egindako inbertsio ondasunen eskuraketen zioz jasandako kuotei dagozkien zerga oinarrien zenbatekoa, zerga tasa bakoitzeko.

[84], [87] eta [90]. Epealdian egindako inbertsio ondasunen eskuraketei dagozkien kuoten zenbatekoa, zerga tasa bakoitzeko, kuota kenezinak barne, lainaren erregela, bidezkoa denean, aplikatu baino lehen.

[85], [88] eta [91]. Epealdian egindako inbertsio ondasunen eskuraketei dagozkien kuoten zenbatekoa, zerga tasa bakoitzeko, lainaren erregela, bidezkoa denean, aplikatu baino lehen.

[92]. %4, %10 eta %21 ez beste zerga tasa batzuk aplikatu zaizkien inbertsio ondasunen eskuraketen fakturen zioz jasandako kuotei dagozkien zerga oinarri guztien batura.

[93]. Ekitaldian %4, %10 eta %21 ez beste zerga tasa batzuk aplikatu zaizkien inbertsio ondasunen eskuraketen fakturen zioz jasandako kuota guztien batura, lainaren erregela, bidezkoa denean, aplikatu baino lehen.

[94]. Ekitaldian %4, %10 eta %21 ez beste zerga tasa batzuk aplikatu zaizkien inbertsio ondasunen eskuraketen fakturen zioz jasandako kuota guztien batura, lainaren erregela, bidezkoa denean, aplikatu ondoren. Zenbatekoa negatiboa bada, (-) zeinuarekin jarri behar da.

[95]. [83], [86], [89] eta [92]. laukietan adierazitako zenbatekoen batura.

[96]. [84], [87], [90] eta [93]. laukietako zenbatekoen batura.

[97]. [85], [88], [91] eta [94]. laukietan adierazitako kopuruen batura.

*Zerga oinarria, guztira*, [98]. laukia. [65], [80] eta [95]. laukietako zenbatekoen batura jarri behar da.

[98]. laukia = [65]. laukia + [80]. laukia + [95]. laukia



*Jasandako kuota*, guztira, [99]. laukia. Ondasun arrunten erosketengatik, gastuengatik eta inbertsio ondasunen eskuraketengatik jasandako kuota guztien batura adierazi behar da:

[99]. laukia = [66]. laukia + [81]. laukia + [96]. laukia

*Kuota kengarria*, guztira, [100]. laukia. Ondasun arrunten erosketengatik, gastuengatik eta inbertsio ondasunen eskuraketengatik kengarri diren kuota guztien batura adierazi behar da.

[100]. laukia = [67]. laukia + [82]. laukia + [97]. laukia

## Laina

[101][102] laukiak. Lain orokorra [101] edota lain berezia [102] aplikatu bad(ir)a, lauki hauetan X jarrita adierazi behar da.

Lainaren ahunekoa, [103]. laukia. Epealdiko autolikidazioan aplikatutako lainaren ehunekoa adierazi behar da.

## Eragiketa espezifikoak

Esportazioak eta haiekin berdinetatik eragiketak, [104]. laukia.

Epealdian egindako eragiketa hauen guztirako zenbatekoa adierazi behar da:

- Behin betiko esportazioak eta bidalketak Kanarietara, Zeutara eta Melillara, BEZari buruzko 7/1994 Fako 21. artikuluan xedatutakoaren arabera.
- BEZari buruzko 7/1994 Fako 22 eta 64. artikuluetan aipatutako emateak eta zerbitzugintzak.
- BEZari buruzko 7/1994 Fako 23 eta 24. artikuluetan aipatutako eragiketa salbuetsiak.

Aurrean aipatutako eragiketen zenbatekoa hauxe izango da: esportatu edo emandako ondasunen eta egindako zerbitzuen kontraprestazioen guztirako zenbatekoa, aurreratutako ordainketak edo, bestela, haien barruko balioak barne.

*Batasunaren barruko emateak*, [105]. laukia. Likidazioaldian Europar Batasuneko beste estatu batzuetan egindako ondasun emate salbuetsien zenbatekoa adierazi behar da, Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko 7/1994 Foru Arauko 25. artikuluan xedatutakoa aplikatuta eta eragiketa horien ondoriozko ordainketa aurreratuak, BEZaren Araudiko 30.1. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik, zenbatuta.

*Zergapean ez dauden edo salbuetsi dauden beste eragiketa batzuk*, kenkaria aplikatzeko eskubidea ematen dutenak, [106]. laukia. BEZari buruzko Foru Arauko 94. artikulua arabera zergapean ez dauden edo salbuetsita dauden kenkari eskubidedun beste eragiketa batzuen guztirako zenbatekoa jarri behar da, hain zuzen ere eragiketa zehatzen ataleko beste kontzeptu batzuetan adierazitakoez beste batzuen.

*Subjektu pasiboaren inbertsioaren ziozko eragiketak, likidazioan ageri ez direnak*, [107]. laukia. Epealdian subjektu pasiboa aldatuta egindako ondasun emateen eta zerbitzugintzen zenbatekoa jarri behar da, hain

zuzen ere inprimaki honetako 19. laukian (Subjektu pasiboaren inbertsioaren zioz sortutako BEZ) adierazi behar ez diren halako eragiketen zenbatekoa.

Batasunaren barruko zerbitzugintzak, Zergaren aplikazio-lurraldetik kanpo eginak [108]. laukia. Subjektu pasiboak Europar Batasuneko beste estatu batzuetan egindako zerbitzuen zenbatekoa adierazi behar da.

## Data eta sinadura

Autolikidazio honetan data zehaztu behar da eta subjektu pasibo aitortzaileak edo beraren ordezkariak sinatu behar du.

## Oharrak

- 1.º Zergaldi bakoitzeko autolikidazioa araubide erkideko administrazioari edota lurralde historikoetako administrazioei aurkeztu behar dieten subjektu pasiboek likidazio bera aurkeztu behar dute, nahiz eta bakoitzaren emaitza administrazio bati egotzi.
- 2.º Subjektu pasibo bakoitzak autolikidazio bat egin behar du, nahiz eta jarduera ekonomiko bat baino gehiago egin.

## Aurkezteko epealdia

Autolikidazioa hileko likidazioaldia amaitu ondoko egutegiko hilaren lehenengo hogeita bost egunetan aurkeztu behar da.

Hala ere, uztaileko autolikidazioa abuztuan zehar eta iraileko egutegiko lehen 25 egunetan aurkez daiteke.

- Subjektu pasiboaren likidazioaldia hilabete naturalarekin bat datorrenean, hileko likidazioaldiaren osteko hilabeteko egutegiko hogeita bost egunetan zehar aurkeztu beharko da autolikidazioa.

Hala ere, uztaileko autolikidazioa abuztuan zehar eta iraileko egutegiko lehen 25 egunetan aurkez daikete.

Hileko itzulketen erregistroan inskribatuta dauden subjektu pasiboaren abenduko autolikidazioa azken autolikidaziotzat hartuko da; hurrengo urtarrileko 1etik 31ra bitartean aurkeztu beharko da.

Subjektu pasibo hauen 390 ereduak, BEZaren azken autolikidazioari buruzkoa, laburpen informatiboa izango da.

Gainerako subjektu pasiboetatik, HIEEn inskribatuta egon gabe likidazioak egutegiko hilen arabera egiten dituztenek ezin aurkeztu izango dute abenduko likidazioaren 303 ereduak: likidazioaren emaitza 390 ereduak sartu behar dute

- Subjektu pasiboaren likidazioaldia hiruhileko naturalarekin bat datorrenean, hiruhileko likidazioaldia amaitu osteko hilabeteko egutegiko hogeita bost egunetan zehar aurkeztu beharko da autolikidazioa.

Subjektu horiek ezin dute aurkeztu laugarren hiruhilekoko autolikidazioa; aldi horretako likidazioa 390 ereduak sartu behar dute.